



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainak 2

Vitoria-Gasteiz, 2 de junio de 2020

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

2 MILIOI ENPRESEI BIDERATUTA, INGURUMENA BABESTEKO INBERTSIOETARAKO

Gobernu Kontseiluak onartu egin du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren, Iñaki Arriolaren, agindua; horren bidez, ekitaldi honetarako diru-laguntzak deitu dira, enpresei zuzenduta, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko. Aginduak honako diru-laguntza ildo hauek aurreikusten ditu:

- Ingurumenaren babesaren arloan Europar Batasunaren arauak gainditu edo arauditik eza egonez gero babesa areagotu ahal izateko inbertsioetarako laguntzak.
- Batasunaren etorkizuneko arauetara aurretiaz egokitzeko laguntzak.
- Ingurumen-azterlanetarako laguntzak.
- Hirugarrenek sortutako hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko inbertsioetarako laguntzak.
- Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat, «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera.
- ETEentzako laguntzak, ingurumen-arloan aholkularitza-zerbitzuak emateko.

Deialdirako aurrekontu-zuzkidura 2 milioi eurokoa da; 1.110.000 euro prozedura arruntaren bidez esleitutako proiektuetarako esleitzen dira, eta gainerako 890.000 euroak, prozedura sinplifikatuaren bidez esleitutako proiektuetarako. Laguntza horiek Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin batera finantzatzen dira

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Esleipen-prozedura bakoitzean hartzen den ebazpena gehienez sei hileko epean eman eta jakinaraziko zaie interesdunei, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

HITZARMENA BC3-rekin, KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO IKERKETAKO, ZABALKUNDEKO ETA PRESTAKUNTZAKO JARDUERAK SUSTATZEKO

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta BC3, Basque Centre For Climate Change - Klima Aldaketa Ikergaiaren arteko hitzarmena sinatzeko; haren bidez, BC3k 430.000 urteko ekarpena jasoko du urtean, datozen lau urteotan, alegia, 1,7 milioi euro guztira, klima-aldaketaren ondorioak arintzeko eta lurra haietara egokitzeko jarduketak gauzatzeko.

BC3ren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko akordioak sei jardun-arlo zehatz aurreikusten ditu:

1. Klimaren oinarriak

BC3ren indarguneetako bat da kriosferan, alegia, ura egoera solidoan dagoen lurralde-gainazalaren aldeetan, klima-aldaketa sustatzen duten prozesu fisikoen inguruko ezagutza sortzea. Horrek hura neurtzeko ekipamendu zientifiko teknikoaren garapena ere barne hartzen du. Hori horrela, BC3k IZOTZALAB sortu du, Estatuan laborategi paregabea, eta hark ekarpen esanguratsua egingo dio ezagutza horren aurrerapenari; hala, eremu horretako adituak erakarriko ditu, Pirinioetako sistemei arreta berezia eskainiz, Euskadiko alpinisten espedizioekin lankidetzan.

2. Karbono gutxiko gizarte bilakatzea

Herrialde gehienek aurkeztu dituzte, dagoeneko, Parisko Akordioarekiko konpromisoak (Herrialdeka Zehaztutako Ekarpenak direlakoak); hartan, arintze-eremuan abiarazi nahi dituzten ekintzak deskribatzen dira. Horretarako, erabakiak hartzeko arduradunek beren politikak eskuragarri dagoen zientzia-informazio onena oinarri hartuta diseinatu eta ebaluatu behar dituzte. BC3k ereduak, tresnak eta hurbilketak eskainiko ditu, politika energetikoen eta sektorial orokorren diseinua sendotzeko, trantsizio sektorialen ebaluazioak egiteko eragile guztiak inplikaturik, eta karbono gutxiko politiken eta garapen jasangarriko helburuen arteko sinergiak aztertzeko.

3. Lurreko ekosistemak

Honako hauek aztertuko dira:

- Klima-aldaketaren aurrean erresilienteak diren lurreko ekosistemak berrezartzeko gakoak.
- Klima-aldaketak ekosistemetan dituen eraginak, batik bat basoetakoak eta lurretakoak, goiz diagnostikatzeko sistemak garatzea.
- Kudeaketa-sistemak eta ustiapen-ereduak.

- Nekazaritzaren eta basogintzaren sektoreek egiten dituzten emisioen eta lurzoruaren erabileren estimazioak hobetzea berotegi-efektuko gasen inbentarioetan.
- Egokitzapen- eta arintze-politikak aplikatzeko beharrezkoak diren prozesu parte-hartzaileak garatzea.

4. Klima-aldaketara egokitzeko neurriak

Ikerketa-ildo honetan, lau ardatz ikasiko dira:

- Egokitzapenaren ekonomia, egokitzapen-politiken analisia, klima-arriskuaren balioespena eta arrisku onargarria.
- Egokitzapenaren eta klimarekiko erresilientziaren bilakaeraren neurria uraren zikloan, lurraren, azpiegituren eta hirien erabileran.
- Bero-boladen ondorioak eta airearen kalitatea giza osasunean, alerta-sistemen eta -iragarpenen hobekuntza, haren inpaktu ekonomikoen balioespena eta haiek arintzeko neurrien garapena.
- Itsasoaren mailaren igoerak eta uholdeek dakartzaten eraginak, bereziki muturreko gertakarietan.

5. Giza eta natur sistemen eredu integratuak

Adierazle dinamikoen, irizpide anitzeko sistemen eta bistaratze geoespazialaren garapenean lan egingo da, eta, horretarako, teknologia digitalak, adimen artifiziala eta prozesu konplexuen modelizazioa baliatuko dira, sistema sozioekologikoetan jasangarritasuna sustatuko duten erabakiak hartzeko.

6. Zabalkundea eta gaikuntza

Klima-aldaketaren alderdiei buruzko ezagutza zabaltzeko ekintzak, mintegi, ikastaro eta jardunaldien bidez, bai eta klima-aldaketaren gizarte-pertzepzioaren ereduaren garapena ere.

Osasuna

OSASUN SAILAK 2,8 MILIOI EURO BIDERATU DITU 2020AN ADIKZIOEN INGURUKO ZENBAIT JARDUKETA GARATZEKO LAGUNTZETARA

Gobernu Kontseiluak gaur onetsi duen aginduaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak aurten **2.854.400 euro** bideratuko ditu Euskadin lan egiten duten toki-erakunde eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzetarako, prebentzio komunitarioko programak garatzeko, prebentzio-proiektuak egiteko eta adikzioen arloan arrisku eta kalteak murrizteko eta jarrera osasungarriak sustatzeko. Era berean, laguntzak toki-erakundeetako adikzioen prebentzio komunitarioko talde teknikoak mantentzera bideratuko dira.

Toki-eremuan eta osasun-arloaz bestelakoetatik egiten diren jarduketetan osasuna sustatzeko, Osasun Sailak laguntza horiek deitzen ditu, eta haien helburua da 2017-2021erako Euskadiko Adikzioen VII. Planeko jarduketa-ardatzetan hoberen finkatzen diren programak eta proiektuak mantentzea, behar berriak identifikatzea eta horiei erantzuna emango dieten proiektu berriak bultzatzea, bai eta ekimenak hobetzen laguntzea ere.

Laguntza ekonomiko horiek 2013-2020rako Osasun Planarekin bat datoz, **eta ildo nagusietako bat dira Euskadin adikzioen arloan garatzen den lanean;** bertan, erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzeta eta hirugarren sektorearekiko eta kolektiboekiko elkarlana funtsezkoak dira.

Hala, **Eusko Jaurlaritzak eta Osasun Sailak eutsi egiten diote adikzioen fenomenoari heltzeko eta erantzuteko konpromisoari,** eremu komunitariotik, **Euskadiko Adikzioen VII. Planarekin bat etorritik;** plana Euskadin adikzioen arloan garatzen diren estrategia eta esku-hartze guztien plangintza-, antolamendu- eta koordinazio-tresna da.

Zehazki, **laguntza ekonomikoa honela banakatzen da dirulaguntzako hiru ildoetan:**

- ✓ Adikzioen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortu eta mantentzea: 1.174.135 euro
- ✓ Toki-planei eta jardun-eremu horretako jokabide osasungarriak sustatzeko planei atxikitako adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzea: 561.765 euro
- ✓ Adikzioen eremuan prebentziorako eta arriskuak eta kalteak gutxitzeko eta jokaera osasungarriak sustatzeko proiektuak egitea: 1.118.500 euro. Haietatik, **236.000 euroko partida Euskadin jokorako adikzioa eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuk prebenitzeko eta tratatzeko helburu duten proiektuetara bideratuko da.**

Segurtasuna

UZTAILAREN 12ko HAUTESKUNDEETAKO MAHAIKIDEENTZAKO JARRAIBIDEEN ESKULIBURUA ONARTU DA

Gobernu Kontseiluak, Segurtasun Sailak eskatuta, uztailaren 12an egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako mahaikideentzako jarraibideen eskuliburua onartu du. Eskuliburua Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak prestatu du, eta Hauteskunde Batzorde Zentralaren eta Euskadiko Hauteskunde Batzordearen oniritzia du.

Eskuliburuaren 32.900 ale argitaratuko dira, eta udalek ekainaren 13tik 17ra bitartean egingo dituzten zozketetan lehendakari, bokal eta haien ordezko izendatzen direnei banatuko zaizkie.

Eskuliburuari babes eta segurtasun gomendio sanitarioak jasotzen dituen eranskina gehituko zaio. Gomendio horiek Osasuneko sailburordearen 2020ko ekainaren 1eko ebazpenean, uztailaren 12rako deitutako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako osasun-jarraibideei buruzkoan, emandakoak dira.

Lana eta Justizia

GOBERNU KONTSEILUAK ONARTU DU ABOKATUEN ETA PROKURADOREEN LANBIDEETAKO SARBIDE-PROBAK EUSKARAZ EGITEKO HITZARMENA SINATZEA JUSTIZIA MINISTERIOAREKIN

Gobernu Kontseiluak onartu du abokatuen eta prokuradoreen lanbideetarako sarbide-probak euskaraz egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren eta Justizia Ministerioaren arteko hitzarmena sinatzea.

Hitzarmenean Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Justizia Ministerioaren arteko lankidetzaren oinarriak ezartzen dira, abokatuen eta prokuradoreen lanbideetako sarbide-probak gaztelaniaz zein euskaraz egin ahal izan daitezen, izangaiak erabakitzen duenaren arabera, eta deialdian ezarritako arauetan ezarritako baldintzei jarraituz.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoak hitzematen du bertako itzulpen-zerbitzuak Justizia Ministerioaren Euskadiko Lurralde Kudeatzailtzaren instalazioetara joango direla probaren itzulpena egiteko, edukiaren bidezko konfidentzialtasuna gorde dadin. Bestalde, Justizia Ministerioak hitzematen du sarbide proba egiten den egunean izangaiei azterketa euskaraz egiteko txantiloiak emango zaizkiela.

Edonola ere, abokatuen eta prokuradoreen lanbideetarako sarbide-azterketa honako hauek arautzen dute: urriaren 30eko 34/2006 Legeak, Auzitegietako abokatuen eta prokuradoreen lanbideetan sartzeari buruzkoak; ekainaren 3ko 775/2011 Errege Dekretuaren bidez legea garatzeko onartutako erregelamenduak; gaitasun profesionala ebaluatzeko probetarako deialdiak arautzen dituzten ministro-aginduek; eta aurrekoak ordezkatzan edo osatzen dituen estatuko araudiak.

Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

2 MILLONES EN AYUDAS A LAS EMPRESAS PARA INVERSIONES DESTINADAS A LA PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE

El Consejo de Gobierno ha aprobado la Orden del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Medio Ambiente, Iñaki, Arriola, por la que se convocan para el presente ejercicio las subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente. La orden contempla las siguientes líneas de subvención:

- Ayudas a inversiones que permitan ir más allá de las normas de la Unión Europea en materia de protección medioambiental o incrementen esta en ausencia de normativa.
- Ayudas para la adaptación anticipada a futuras normas de la Unión.
- Ayudas para estudios medioambientales.
- Ayudas a la inversión para el reciclado y reutilización de residuos generados por terceros.
- Ayudas para el saneamiento de terrenos contaminados cuando no se pueda identificar a la persona responsable o no pueda ser tenido legalmente como responsable de financiar la rehabilitación de conformidad con el principio “quien contamina paga”.
- Ayudas a las PYME para servicios de asesoramiento en materia de medio ambiente.

La dotación presupuestaria para la convocatoria asciende a 2 millones de euros, de los cuales 1.110.000 euros se asignan para los proyectos adjudicados por el procedimiento ordinario y los 890.000 euros restantes para los proyectos adjudicados por el procedimiento simplificado. Estas ayudas están cofinanciadas por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes desde el día siguiente a la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

La resolución que se adopte en cada procedimiento de adjudicación será dictada y notificada a las personas interesadas en el plazo máximo de seis meses a contar desde el día siguiente a la publicación de esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

CONVENIO CON EL BC3 PARA LA PROMOCIÓN DE ACTIVIDADES DE INVESTIGACIÓN, DIVULGACIÓN Y FORMACIÓN SOBRE EL CAMBIO CLIMÁTICO

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde a la firma de un convenio entre el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y el BC3, Basque Centre For Climate Change – Klima Aldeketa Ikergai, en virtud del cual éste recibirá una aportación de 430.000 euros anuales durante los próximos cuatro años, lo que supone un total de 1,7 millones de euros, para llevar a cabo actuaciones de materia de mitigación y adaptación del territorio a los efectos del cambio climático.

El acuerdo entre el BC3 y el Gobierno Vasco contempla seis áreas concretas de actuación:

1. Fundamentos del clima

Uno de los puntos fuertes del BC3 es la generación de conocimiento sólido acerca de los procesos físicos que impulsan el cambio climático en la criosfera, es decir, en las partes de la superficie terrestre en las que el agua se encuentra en estado sólido. Ello incluye también el desarrollo de equipamiento científico técnico para su medición. En este sentido, BC3 ha construido IZOTZALAB, un laboratorio único en el Estado que contribuirá significativamente al avance de este conocimiento, atrayendo a especialistas en este campo, con especial atención a los sistemas pirenaicos, y en colaboración con expediciones de alpinistas de Euskadi.

2. Transición a una sociedad baja en carbono

La mayoría de los países ya ha presentado sus compromisos (las llamadas Contribuciones Nacionales Determinadas) con el Acuerdo de París, donde describen las acciones que tienen previsto llevar a cabo en el ámbito de la mitigación. Ello requiere que los responsables de la toma de decisiones diseñen y evalúen sus políticas basándose en la mejor información científica disponible. El BC3 aportará modelos, herramientas y aproximaciones para reforzar el diseño de las políticas energéticas y sectoriales generales; realizar evaluaciones de las transiciones sectoriales con la implicación de todos los actores; y explorar las sinergias entre las políticas de bajo carbono y los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS).

3. Ecosistemas terrestres

Se estudiarán:

- las claves para la restauración de ecosistemas terrestres resilientes al cambio climático;
- el desarrollo de sistemas de diagnóstico tempranos de los impactos del cambio climático en los ecosistemas, en especial los forestales y los suelos;
- los sistemas de gestión y modelos de explotación;
- la mejora de las estimaciones de las emisiones por parte de los sectores de la agricultura, la silvicultura y los usos del suelo en los inventarios de gases de efecto invernadero;
- el desarrollo de los procesos participativos necesarios para la aplicación de políticas de adaptación y mitigación.

4. Medidas de adaptación al cambio climático

Esta línea de investigación estará dedicada a estudiar cuatro ejes:

- la economía de la adaptación, análisis de políticas de adaptación, valoración del riesgo climático y riesgo aceptable;
- medida del progreso de la adaptación y resiliencia al clima en el ciclo del agua, en el uso del territorio, las infraestructuras y las ciudades;
- los efectos de las olas de calor y la calidad del aire en la salud humana, la mejora de los sistemas de alerta y predicciones, la valoración de sus impactos económicos, así como el desarrollo de medidas para paliarlos;
- los impactos de la subida del nivel del mar y las inundaciones, especialmente en eventos extremos.

5. Modelos integrados de sistemas humano-naturales

Se trabajará en el desarrollo de indicadores dinámicos, sistemas multicriterio y visualización geoespacial, mediante el uso de tecnologías digitales, inteligencia artificial y modelización de procesos complejos para la toma de decisiones que promuevan la sostenibilidad en los sistemas socio-ecológicos.

6. Divulgación y capacitación

Acciones para la divulgación del conocimiento sobre los diferentes aspectos del cambio climático a través de seminarios, cursos y jornadas, así como el desarrollo de modelos de percepción social del cambio climático.

Salud

EL DEPARTAMENTO DE SALUD DESTINA 2.8 MILLONES DE EUROS EN AYUDAS PARA EL DESARROLLO DE DISTINTAS ACTUACIONES EN MATERIA DE ADICCIONES DURANTE EL 2020

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la Orden por la que el Departamento de Salud del Gobierno Vasco destina, este año, **2.854.400 euros** en concepto de ayudas a entidades locales y organizaciones sin ánimo de lucro, que realizan su labor en Euskadi, para el desarrollo de programas de prevención comunitaria, realización de proyectos de prevención y reducción de riesgos y daños **en materia de adicciones** y promoción de conductas saludables. Así mismo, las ayudas se destinarán al mantenimiento de los equipos técnicos de prevención comunitaria de las adicciones de distintas entidades locales.

Con el fin de **promover la salud en las actuaciones que se llevan a cabo en el ámbito local y desde otros sectores diferentes al sanitario**, el **Departamento de Salud** convoca estas ayudas cuyo objetivo es mantener los programas y proyectos mejor instalados en los ejes de actuación del VII Plan de Adicciones de Euskadi 2017-2021, identificar nuevas necesidades y apoyar nuevos proyectos que las atiendan, así como contribuir a la mejora de nuevas iniciativas.

Estas ayudas económicas, alineadas con plan de Salud 2013-2020 **suponen uno de los puntales de la labor en materia de adicciones que se desarrolla en Euskadi** donde la coordinación y colaboración interinstitucional, y la cooperación con el tercer sector y los colectivos es fundamental.

De esta forma, **el Gobierno Vasco y el Departamento de Salud mantienen su compromiso para abordar y dar respuesta al fenómeno de las adicciones desde un ámbito comunitario, de acuerdo con el VII Plan de Adicciones de Euskadi** que constituye el instrumento de **planificación, ordenación y coordinación de todas las estrategias e intervenciones que se desarrollan en Euskadi** en materia de adicciones.

Concretamente **la ayuda económica se desglosa en las tres líneas de subvención** de la siguiente manera:

- ✓ Creación y mantenimiento de equipos técnicos de prevención comunitaria de las adicciones: 1.174.135 euros
- ✓ Desarrollo de programas de prevención comunitaria de las adicciones adscritos a los planes locales y de promoción de conductas saludables en este ámbito de actuación: 561.765 euros
- ✓ Realización de proyectos de prevención y reducción de riesgos y daños y de promoción de conductas saludables en el ámbito de las adicciones: 1.118.500 euros. De ellos, se **destinará una partida de 236.000 euros a proyectos** cuya finalidad sea **la prevención y el tratamiento de la adicción al juego** y otras adicciones sin sustancia en Euskadi.

Seguridad

APROBADO EL MANUAL DE INSTRUCCIONES DE LAS PERSONAS QUE FORMARÁN PARTE DE LAS MESAS ELECTORALES EL 12-J

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a instancias del Departamento de Seguridad, el manual de instrucciones de las personas que formarán parte de las mesas electorales en las próximas elecciones al Parlamento Vasco que se celebrarán el 12 de julio. El manual, elaborado por la Dirección de Régimen Jurídico y Procesos Electorales del Departamento de Seguridad, cuenta con el visto bueno de la Junta Electoral Central y de la Junta Electoral de Euskadi.

De dicho manual se editará un total de 32.900 ejemplares que serán distribuidos a quienes resulten designados como presidentes, vocales y personal suplente en el sorteo que se celebrarán en los ayuntamientos entre los días 13 y 17 de junio.

En el citado manual se incorporará un anexo con las recomendaciones sanitarias de protección y seguridad que emanan de la resolución de 1 de Junio de 2020, del viceconsejero de Salud sobre directrices sanitarias para la celebración de las Elecciones al Parlamento Vasco convocadas para el día 12 de Junio.

Trabajo y Justicia

**EL CONSEJO DE GOBIERNO AUTORIZA LA SUSCRIPCIÓN DEL
CONVENIO CON EL MINISTERIO DE JUSTICIA PARA LA REALIZACIÓN
EN EUSKERA DE LAS PRUEBAS DE ACCESO A LA PROFESIÓN DE
ABOGACÍA Y PROCURADURÍA**

El Consejo de Gobierno ha autorizado la suscripción del Convenio entre Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Ministerio de Justicia para la realización de las pruebas de acceso a la profesión de abogacía y procuraduría en euskera.

En el convenio se establecen las bases de colaboración entre la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Ministerio de Justicia para facultar que la prueba de acceso al ejercicio de las profesiones de abogacía y procuraduría pueda hacerse, indistintamente, en castellano o en euskera, en función de la libre decisión del aspirante, en los términos que se fijan en las normas establecidas en la convocatoria.

Sobre la base de dicho objeto, la Comunidad Autónoma del País Vasco se compromete a garantizar que sus servicios de traducción se desplacen a las instalaciones en la Gerencia Territorial del Ministerio de Justicia en el País Vasco para realizar la traducción de la prueba, guardando la debida confidencialidad del contenido de dicha prueba. Por su parte, el Ministerio de Justicia se compromete a que el día de la realización de la prueba de acceso se facilite a los aspirantes las plantillas del examen en euskera.

En todo caso, el desarrollo del examen de acceso a las profesiones de abogacía y de procuraduría queda sujeto a la Ley 34/2006, de 30 de octubre, sobre el acceso a las profesiones de abogacía y de procuraduría de los Tribunales; al Reglamento de desarrollo, aprobado por el Real Decreto 775/, de 3 de junio, por las Órdenes Ministeriales que regulen las convocatorias respectivas para las pruebas de evaluación de aptitud profesional, o por la normativa estatal que sustituya o complemente a las anteriores.